

**HEZKUNTZA SAILBURUA, SAILBURUORDEA, LANBIDE  
HEZIKETAKO SAILBURUA, SAILBURUORDEA,  
IKASTETXEETAKO ZUZENDARIA jaun-andrei, adetasunez:**

Gasteizen 2013 ko azaroaren 28an izandako HHletako zuzendarien bileran 2013 ko urriaren 18ko Ebazpena aztertu ondoren, non Lanbide Heziketako 2013-14 ikasturterako Lanbide Heziketako Sarbide Frogak arautzen diren, honako hau adostu dugu:

Ikasturtea aurreratuta egonik, ezinezkoa da ikasleriak dituen aurreikuspenak eta planak erabat zapuztuta geratzea.  
Plaza kopuruak mugatzeak azterketa egiteko aukerak murrizten ditu.  
Aipatutako arrazoi ekonomikoak ez du murrizketa inondik inora justifikatzen.

Horregatik guztiarengatik 2013ko urriaren 18ko Ebazpena baztertzeko eskatzen dugu eta 2012ko urriaren 10ekoa errespetatzea.

Hala ta guztiz ere etorkizunean gure laguntza eskaintzen dizuegu, gure Ikastetxeei dagozkien gaiak lantzeko.

Hemen azaldutakoaren erantzunaren zain geratzen gara.

Gasteizen, 2013ko azaroaren 28an

## PRENTSA OHARRA

Gasteizen 2013ko azaroaren 28an izandako HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORREKOKo zuzendarien bileran, 2013-14ko Lanbide Heziketako Sarbide Probetako deialdian sortutako egoera aztertu dugu. Aurrekontua dela eta uste dugu ez dagoela arrazoirik plaza kopurua murrizteko; adierazi nahi dugu pertsona guztiek daukatela eskubidea Proba horretan parte hartzeko. Ez dugu onartzen gure ikasleengan sortzen duen ezinegona, ikasturtea irailean hasi baitzuten prestatzen. Horregatik, arren eskatzen diogu Hezkuntza Sailari Ebazpena baliorik gabe uzteko eta aurrekoa mantentzeko.

Gasteizen, 2013ko azaroaren 28an